

Akademia eta herrigintza



ANTTON OLARIAGA



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Zutabe hau idazten ari naizen unean, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) jardunaldi interesgarri bat iragaten ari da Iruñean, 49. Udako Ikastaroen baitan: *Akademiatik herrigintzara, herrigintzatik akademiara*. Plazerez entzunen nituen mahai inguruko hizlariak, baina zorigaitzez, lan egin beharregatik ez naiz joan ahal izan. Ekitaldiaren aktak edo grabaketa erdietsi artean, zenbait hausnarketa egin gogo nuke funtsez-gai horretaz.

Leporatzten zaio maiz unibertsitate akademikoari herri kezketarik, herritarrengandik eta oro har mundu errealetik urrun geratzea, eta hein handi batean, egia da. Ohar hori, ez da Euskal Herrian bakarrik egiten. Dakidanez, Frantziain gairik azpimarratzen da unibertsitatearen huts handia dela ikasleak ez aski prestatzea merkatuko errealitatera, bestela erranda, langile enplegagaitzak formatzea. Funtsean, munduko unibertsitateak sailkatzen dira, besteak beste, formatu dituzten ikasleen enplegagarritasunaren arabera. Sistema kapitalistak eragin dituen behar sozio-ekonomikoei hobeki erantzun diezaien galdegina zaio beraz unibertsitateari. Baina ez du ildo horretatik bideratu gogoeta UEUk, uni-

bertsitatearen lehen funtzioa ez baitaiteke izan jendea lan mundu berezi baten-dako formatuan ezartzea, baizik eta ikasi eta izpiritu kritikoa zorroztu nahi duten pertsonak formatzea.

Ikusiz haatik, Iparraldean behintzat, zoin baliabide urriak dauzkan unibertsitateak, ikusiz irakasleei kursoak metatzen zaizkiela, lan administratiboa pilotzen, eta ikerketarako ez dutela kasik gehiago denborarik, iruditzen zait nehoiz baino gehiago harreman sendoak azkartu behar direla unibertsitatea eta herrigintzaren artean: indarrak batu behar dira kolektiboki sustengatzeko jendartearen ernetasun eta irekidura intelektuala, bai eta jakitate gose eta transmisioa ere.

Mundu akademikoaren eta herrigintzaren arteko loturak literaturaren sailera eramateko, erran nezake iraganak erakusten digula jakintsu akademiko arrotzei esker abiatu dela zinezko interes kritikoa, Francisque-Michel eta Vinson bezalakoekin. Ondotik agertu dira toki-koak, Euskaldunen Biltzarra edo Euskaltzaindia izan aitzin herritar gisa lehenik ari izan direnak literatura ikertzen eta balioztatzen. Sorkuntza literarioa begiratzen badugu, adibidez narrazioa saila,

ohartuko gara lehen kontaketa egileak beren garaiko jendarte intelektualetik jalgiak zirela, baina biziki garrantzitsua izan zitzaiea herri literaturarekin harremanetan egotea beren lanetan. Pentsatzen dut hemen Bizenta Mogel, Zaldubi edo Oxobi bezalako alegiariei, haiek abiarazi zutelako narrazio generoa euskal literaturan: lortu zuten, alegia genero erdi-jaso erdi-herrikoia hautatu zutelako, irakurlego zabala ukan zutelako xede, eta ez beste batzuek bezala publiko kultua bakarrik (hala nola Juan Antonio Mogelek *Peru Abarka*-rekin).

Beste jakitate edo sorkuntza esparruetan ere erakuts daiteke euskal kultura eta gizartea aitzinatu direla mundu akademiko eta herrigintzaren lanak bide beretik eta bat bestea sustengatuz joan direnean. Erakunde publikoak ahultzen ari diren garai honetan, sekula ez baino gehiago beharrezkoa da, ene ustez, bien arteko elkar laguntza. Iparraldean dauzkagu elkarte kultural sendoak, Euskal Kultur Erakundea lehen... eta unibertsitateak, ikerketa laborategiekin batera, saiatzen da bulgarizatzen bere jakitatea. Elkarlan gehiago egin daiteke oraino, segur, herritarren eta herriaren onerako. ●